



2023/2024 denboraldia

FUTBOLA – ARAUDIEN EGOKITZAPENAK

FUTBOL 8


1. JOKALEKUAREN ETA ATEEN NEURRIAK.

1.1. Jokalekuaren forma eta neurriak.

Jokalekua laukizuzen erakoa da eta 50-65 metro luze eta 30-45 metro zabal da.

Oinarrizko seinaleak (1. irudia):

- Area handia.- Ateko marraren eta marra horrekiko perpendikularrean ateko zutoin bakoitzetik 9 metroko distantziara (benjamin eta alebin kategorietarako) eta 13 metroko distantziara (infantil kategorietarako) markatutako marraren arteko azalera da. Zortzi metroko distantziara eta erdi-erdian, ondo ikusteko moduan, penalti puntua markatzen da; handik jaurtiko dituzte penaltiak benjaminek, eta bederatzi metrotik, berriz, alebinek eta kadeteek. Penalti puntua erdigune gisa hartuta, penalti area bakoitzaren kanpoaldera sei metroko erradioa duen zirkunferentzia-arkua markatzen da.
- Jokoz kanpoko area.- Aurkariaren taldeko 12 metroko eremua benjamin kategorietarako, eta 13 metrokoa alebin eta infantil kategorietarako.



1.2. Ateen forma eta neurriak.

Ateko marra bakoitzaren erdian bi zutoin bertikalez osatutako atek kokatzen dira, zutoin horiek kornereko banderatxoetatik distantzia berera egongo dira, eta elkarren artean 6 metroko tartea utziko dute (barrualdetik neurtuta); zutoinen goiko ertzak langa horizontal batez elkartuta egongo dira lurretik 2 metroko altueran.

Zeharkako langaren zabalera eta lodiera gehienez ere 12 zentimetrokoa izango da, eta langak nahiz zutoinek zabalera bera izango dute.



2. TALDEEN OSAERA. JOKALARIAK TXANDATZEA ETA ALDATZEA.

2.1. Taldeen osaera.

a) Jokalariak aktan.

Aktan talde bakoitzeko gehienez 16 jokalaria ager daitezke alebin kategoriaren kasuan (15 benjamin, eta infantil kategorietan) eta gutxienez 6 jokalaria. Gutxienerako jokalaria kopurua osatzen ez den kasuan, galtzailatzat joko da jokalaria kopuru hori osatu ez duen taldea, nahiz eta partida joka litekeen.

b) Jokalekuko jokalaria.

Talde bakoitza 8 jokalariz osatuta egongo da eta horietako bat atezaina izango da. Partidari hasiera emateko talde bakoitzeko 6 jokalaria egongo dira gutxienez.

2.2. Jokalariak txandatzera eta aldatzea

Benjamin kategorian, aktan jasotako jokalaria bakoitzak lehenengo hiru zatietan gutxienez zati bat jokatu behar du eta gehienez ere bi. Lehenengo hiru zatietan zehar ezingo da aldaketarik egin, lesionatutako jokalaria ordeztzeko ez bada. Laugarren zatian taldeen osaera librea da eta entrenatzaileak nahi beste aldaketa egin ditzake. Alebin eta infantil kategorian, aldiz, lehenengo bi zatietan jokalaria guztiek jokatu behar dute eta hirugarrenean nahi beste aldaketa egin daitezke. Kadeteen kasuan, jokalaria nahi beste eta inolako mugarik gabe txandatu eta aldatu daitezke, joko gelditu behar izan gabe.

Adibidea

Adibide gisa, arau hori betetzeko eredu bat ematen dugu, jokalariei zenbaki bana emanaz, hamaika jokalaria direla kontuan hartuta:

Lehenengo zatia:	10-2-3-4-5-6-7
Bigarren zatia:	1-2-3-4-8-9-10
Hirugarren zatia:	1-5-6-7-8-9-11
Laugarren zatia:	(Aldaketa libreak)

a) Partidan zehar, taldeetako bat, edozein arrazoiengatik, baita aldi baterako kanporaketengatik ere, bost jokalaria baino gutxiagorekin gelditzen bada jokalekuan, arbitroak amaitutzat eman behar du partida eta emaitza 1-0 izango da zigortutako taldearen aurka.



- b) Atezaina eta jokalarien arteko aldaketak ere egin daitezke, horrelakoetan:
- Aldaketa egin aurretik, epaileari jakinaraziko zaio zer aldaketa egin nahi den.
 - Zelaira sartzera doana ezingo da sartu harik eta irten behar duena irten arte. Epaileak emango du baimena zelaian sartzeko.

Alebin kategorian, lehenbiziko 2 zatietan, jokolari guztiek jokatu behar dute gutxienez zati bat. Lehenengo zatian ezingo da jokalaririk aldatu ez bada min hartu duelako. Bigarren zatian ezingo dira aldatu lehen zatia jokatu ez duten jokalaria, ez bada min hartu dutelako, 15 minutuko (lehen urteko alebinak) edo 20 minutuko (bigarren urteko alebinak) lehen zatia jokatu dutenak aldatu ahal izango dira.

3. PARTIDEN IRAUPENA.

3.1. Benjamin kategoria.

Partidak 20na minutuko 2 denbora izango ditu, eta bien artean 5 minutuko atsedena egingo da. Denbora bakoitzak 10na minutuko bi zati izango ditu eta bien artean bi minutu inguruko atsedena egingo da.

Atsedeen denbora horietan arbitroak egiten diren aldaketak kontrolatu behar ditu.

3.2. Alebin kategoria:

Lehen urteko alebinetan, partidak 3 zati izango ditu, 15 minutukoa bakoitza, eta zati batetik bestera 5 minutuko atsedena egongo da. Bigarren urteko alebinetan berriz, 20 minutuko 3 zati jokatuko dira. Atsedeen denboran arbitroak egiten diren aldaketak kontrolatu behar ditu.

3.3. Infantil kategoria

Nesken kategorian partidak 20na minutuko 3 denbora izango ditu eta denborekin artean 15 minutuko atsedena egingo da.



4. MATERIALA.

4.1. Baloia

Infantil kategoria:

- Nesketan 4 zk-ko baloia: 62-66 zentimetroko zirkunferentzia eta partida hasieran eta 390 gramo arteko pisua duena.

Partida jokatzen ari den bitartean ezingo da baloirik aldatu arbitroaren baimenik gabe.

Benjamin eta alebin kategoria: 4 zk-ko baloia: 62-66 zentimetroko zirkunferentzia eta partida hasieran 340 eta 390 gramo arteko pisua.

5. ARAU TEKNIKOAK.

5.1. Jokoz kanpo

- Jokalaria *jokoz kanpoko posizioan* egongo da, aurkariaren taldeko 12 metroko eremuan (benjamin kategorian) edo 13 metroko eremuan (alebin eta infantil kategoriak) egonda, gutxienez aurkarietako bi baino gertuago badago ateko marraztik. Baina jokoz kanpoko zigorra ezarriko zaio, baldin eta, arbitroaren iritziz, bere taldeko beste jokalaririk batek baloia jokatzen duen unean:
 - Aurkari baten jokoa oztopatzen badu.
 - Bere posizioari onura ateratzen saiatzen bada.
- Arbitroak ez dio *jokoz kanpoko zigorra* ezarri behar jokalaririk bati baldin eta:
 - Posizio horretan egonda ere ez badu jokaldian parte hartzen.
 - Baloia zuzenean ateko saketik, kornerretik, alboko saketik edo bote neutraletik jasotzen badu.
- Jokoz kanpoko arau-haustea jaurtiketa libre ez-zuzen batekin zigortuko da eta falta egin den lekutik jaurtiketa du beste taldeak, baldin eta arau-haustea ez bada area txikiaren barruan egin.
Horrela bada, jaurtiketa libre area txiki edozein lekutatik egin daiteke.



5.2. Faltak.

Arbitroak falta adieraziko du jokalaria batek aurkariaren aurrean zuhurtzirik gabe, modu arriskutsuan edo gehiegizko indarrez jokatzen duenean eta baloia eskuz nahita ukitzen den kasu guztietan, atezainak bere arean ukitzen denean izan ezik. Faltak modu honetan adieraziko dira:

- a) *Jaurtiketa libre zuzen batekin zigortuko diren faltak. Jaurtiketa falta egin den lekutik egingo du beste taldeak, baldin eta falta ez bada aurkako area txikiaren barruan egin.* Horrela bada, jaurtiketa libre area horretako edozein lekutatik egingo da:
- Aurkari bati ostiko ematea edo ematen saiatzea.
 - Aurkariari zangozaba egitea eta baloia ukitu aurretik aurkaria ukitzea.
 - Aurkariaren gainetik jauzi egitea.
 - Aurkariari gorputzez bultzatzea.
 - Aurkariari jotzea edo jotzen saiatzea.
 - Bultzatzea.
 - Eustea edo txistua botatzea.
 - Baloia nahita eskuekin edo besoekin ukitzea, jotzea edo bultzatzea (atezainak hori egin dezake baldin eta bere arearen barruan badago).
- b) *Jaurtiketa libre ez-zuzen* batekin zigortuko diren faltak. Jaurtiketa falta egin den lekutik egingo du beste taldeak:
- Arbitroaren iritziz modu arriskutsuan jokatzea, esaterako, baloiari ostiko ematen saiatzea atezainak eskuetan duenean.
 - Jokaldian sartuta egon gabe sorbaldarekin bultzatzea.
 - Aurkariaren baten aurrerapena oztopatzea baloia jokatu gabe, hau da, aurkariaren eta baloiaren artean korrika egitea edo bien artean jartzea.
 - Atezainari gorputzez bultzatzea, hark baloia duenean, aurkari bat oztopatzen duenean edo area txikitik kanpo dagoenean izan ezik.
 - Atezainaren kasuan eta bere arearen barruan:
 - Baloia eskuekin hartzea eta lau urrats baino gehiago ematea edozein aldetara, baloia atxikiz, bote eginez edo airera bota eta berriz ere eskuekin hartuz jokoan jarri gabe.



Jokoan jarri ondoren baloia berriz ukitzea, lau urratsak eman aurretik, eman bitartean edo ondoren eta:

- beste taldeko jokalarri batek ukitu edo jokatu aurretik, bere area barruan nahiz kanpoan.
- bere taldeko jokalarri batek areaz kanpo ukitu edo jokatu aurretik, ondorengo puntuko baldintzak betez.

Baloia eskuekin ukitzea, bere taldeko jokalarri batek, nahita, oinarekin pasa ondoren. Jokoa atzeratzeko eta denbora galtzeko bakarrik balio duen taktika bat erabiltzea, bere taldeari abantaila desleiala eman nahian.

5.3. Jaurtiketa libreak

Jaurtiketa egitean gol bat sar daiteke zuzenean falta egin duen taldearen atean.

- a)** *Jaurtiketa libreak, zuzenak edo norberaren area handi barrutik egindakoak.* Beste taldeko jokalarri guztiak, gutxienez, baloia dagoen lekutik 6 metrora egongo dira eta area handiaren kanpoaldean geldituko dira baloia areatik kanpo jaurti arte. Baloia jokoan egongo da bere zirkunferentziaren halako distantzia egiten duen une berean eta area handitik haratago jaurtitzen denean. Atezainak ezingo du eskuekin hartu baloia jokoan jartzeko berriro, eta baloia ez bada area handitik kanpo jaurtitzen, errepikatu egin beharko da jaurtiketa.
- b)** *Jaurtiketa libreak, zuzenak edo norberaren area handi kanpotik egindakoak.* Beste taldeko jokalarri guztiak, gutxienez, baloia dagoen lekutik 6 metrora egongo dira, baloia jokoan jarri bitartean, baldin eta ateko marraren gainean eta ateko zutoinen artean kokatuta ez badaude. Baloia jokoan egongo da bere zirkunferentziaren halako distantzia egin ondoren.

Beste taldeko jokalarri bat area handian sartzen bada edo baloitik sei metro baino gutxiagora hurbiltzen bada, bi egoera horietako edozeinetan, jaurtiketa libre egin aurretik, arbitroak atzerarazi egingo du araua bete dadin.

Baloia geldirik egongo da jaurtiketa libre egingo unean eta jaurtitzen duen jokalarriak ezingo du baloia berriz jokatu beste jokalarri batek ukitu edo jokatu arte.

***Nondik egingo da jaurtiketa librea?:***

- Defenditzen ari den taldeari bere area txikiaren barruan jaurtiketa librea adierazten bazaio, *area txikiko edozein lekutatik*.

Zigorra:

- Jaurtiketa librea egiten duen jokalaria baloia berriro jokatzen badu beste jokalaria batek ukitu edo jokatu aurretik, beste taldearen aldeko jaurtiketa librea adieraziko da falta egin den lekutik botatzeko, baldin eta arau haustea ez bada kontrako area txikian egin; orduan, area horretako edozein lekutatik jaurtiko baita.

5.4 Aldi baterako kanporatzeak:

Jokalaria batek behin eta berriz joko-arauak urratzen baditu, arbitroaren erabakiak hitzez edo keinuz gaitzesten baditu eta bere jokabidea zuzena ez dela uste bada, jokalekutik kanporatu behar da 2 minuturako eta beste taldeari jaurtiketa libre ez-zuzena eman behar zaio, falta egin den lekutik jaurti beharko dena.



FUTBOL 11

1. JOKALEKUAREN ETA ATEEN NEURRIAK.

1.1. Jokalekuaren forma eta neurriak.

Jokalekua laukizuzen erakoa da eta 90-120 metro luze eta 45-90 metro zabal da.

Oinarrizko seinaleak (2. irudia):

- Area handia.- Laukizuzen erako lur-azalera, 39,32 m luze eta 16,5 m zabal dena (ateko marratik hasita). Hamaika metroko distantziara eta erdi-erdian, ondo ikusteko moduan, penalti puntua markatzen da eta handik jaurtiko dituzte penaltiak. Penalti puntua erdigune gisa hartuta, area handi bakoitzaren kanpoaldera 9,15 metroko erradioa duen zirkunferentzia arku markatzen da.

- Jokoz kanpoko area.- kontrako jokalekuaren erdia.





2. TALDEEN OSAERA. JOKALARIAK TXANDATZEA ETA ALDATZEA.

2.1. Taldeen osaera.

- a) *Jokalariak aktan.* Aktan talde bakoitzeko gehienez 18 jokalaria ager daitezke eta gutxienez 7.
- b) Jokalekuko jokalaria. Talde bakoitza 11 jokalariz osatuta egongo da eta horietako bat atezaina izango da. Alabaina, partidari hasiera emateko talde bakoitzak gutxienez 7 jokalaria izan beharko ditu jokalekuan.

2.2. Jokalariak txandatzeari eta aldatzeari.

Gehienez ere 7 aldaketa egin daitezke, arbitroari jakinarazita. Gutxienez, 4 aldaketa egin behar dira atsedenean eta 3 azkeneko 15 minutuak baino lehen.

3. PARTIDEN IRAUPENA.

Infantil kategorian, besterik adosten ez bada, mutilen partidak 35na minutuko bi denbora izango ditu, eta neskenak 30na minutuko bi denbora, eta denboren artean gehienez ere 15 minutuko atsedena egingo da. Eta kadete kategorian, besterik adosten ez bada, mutilen partidak 40na minutuko bi denbora izango ditu, eta neskenak 35na minutuko bi denbora, eta denboren artean gehienez ere 15 minutuko atsedena egingo da. Araudiaren arabera:

- Arbitroak partida zati bakoitzean denbora jakin bat erantsi behar du, hain zuzen ere, aldaketak egiteko, lesionatutako jokalaria zelaitik ateratzeko, denbora galtzeko edo bestelako arrazoiak tarteko, bere iritziz, galdu izan den denbora.
- Partida zati bakoitzaren iraupena luzatu egin behar da penaltia jaurti ahal izateko, halakorik egonez gero.

4. MATERIALA

4.1. Baloia

5 zk-ko baloia: 68-70 zentimetroko zirkunferentzia eta partida hasieran 410 eta 450 gramo arteko pisua. Puzte presioa 0,6 eta 1,1 atmosfera artekoa izango da itsas mailan (600-1.100 gr/cm²).



Partida jokatzen ari den bitartean ezingo da baloirik aldatu arbitroaren baimenik gabe.

5. ARAU TEKNIKOAK.

5.1. Jokoz kanpo

- a) Jokalaria *jokoz kanpoko posizioan* egongo da, aurkariaren taldeko 13 metroko eremuan egonda, gutxienez aurkarietako bi baino gertuago badago haien ateko marraatik. Baina jokoz kanpoko zigorra ezarriko zaio, baldin eta, arbitroaren iritziz, bere taldeko beste jokalaririk batek baloia jokatzen duen unean:
- Aurkari baten jokoa oztopatzen badu.
 - Bere posizioari onura ateratzen saiatzen bada.
- b) Arbitroak *ez dio jokoz kanpoko zigorra ezarri behar jokalaririk bati* baldin eta:
- Posizio horretan egonda ere ez badu jokaldian parte hartzen.
 - Baloia zuzenean ateko saketik, kórnerretik, alboko saketik edo bote neutraletik jasotzen badu.
- c) Jokoz kanpoko arau-haustea jaurtiketa libre ez-zuzen batekin zigortuko da eta falta egin den lekutik jaurtiketa du beste taldeak, baldin eta arau-haustea ez bada aurkako area txikiaren barruan egin. Horrela bada, jaurtiketa libre area barruko edozein lekutatik egin daiteke.

5.2. Faltak.

Arbitroak falta adieraziko du jokalaririk batek aurkariaren edo baloiaren aurrean zuhurtzarik gabe, modu arriskutsuan edo gehiegizko indarrez jokatzen duenean.

- a) *Jaurtiketa libre zuzen batekin zigortuko diren faltak.* Jaurtiketa falta egin den lekutik egingo du beste taldeak, baldin eta falta ez bada aurkako area txikiaren barruan egin. Horrela bada, jaurtiketa libre area horretako edozein lekutatik egingo da:
- Aurkari bati ostiko ematea edo ematen saiatzea.
 - Aurkariari zango-traba egitea eta baloia ukitu aurretik aurkariari ukitzea.
 - Aurkariaren gainetik jauzi egitea.
 - Aurkariari gorputzez bultzatzea.



- Aurkariari jotzea edo jotzen saiatzea.
- Bultzatzea.
- Eustea edo txistua botatzea.
- Baloia nahita eskuekin edo besoekin ukitzea, jotzea edo bultzatzea (atezainak hori egin dezake baldin eta bere arearen barruan badago).

b) *Jaurtiketa libre ez-zuzen batekin zigortuko diren faltak.* Jaurtiketa falta egin den lekutik egingo du beste taldeak:

- Arbitroaren iritziz modu arriskutsuan jokatzeko, esaterako, baloiari ostiko ematen saiatzea atezainak eskuetan duenean.
- Jokaldian sartuta egon gabe sorbaldarekin bultzatzea.
- Aurkariren baten aurrerapena oztopatzea baloia jokatu gabe, hau da, aurkariaren eta baloiaren artean korrika egitea edo bien artean jartzea.
- Atezainari gorputzez bultzatzea, hark baloia duenean, aurkari bat oztopatzen duenean edo area txikitik kanpo dagoenean izan ezik.

Atezainaren kasuan eta bere arearen barruan:

- Baloia eskuekin hartzea eta lau urrats baino gehiago ematea edozein aldetara, baloia atxikiz, bote eginez edo airera bota eta berriz ere eskuekin hartuz jokoan jarri gabe.

Jokoan jarri ondoren baloia berriz ukitzea, lau urratsak eman aurretik, eman bitartean edo ondoren eta

- beste taldeko jokalariei batek ukitu edo jokatu aurretik, bere area barruan nahiz kanpoan.
- bere taldeko jokalariei batek area kanpoan ukitu edo jokatu aurretik, ondorengo puntuko baldintzak betetzeko. Baloia eskuekin ukitzea bere taldeko jokalariei batek, nahita, oinarekin pasa ondoren.

Arbitroaren iritziz, jokoa atzeratzeko eta denbora galtzeko bakarrik balio duen taktika bat erabiltzea, bere taldeari abantaila desleiala eman nahian.



5.3. Jaurtiketa libreak

Bi kategoriatan sailkatzen dira:

- *Jaurtiketa libre zuzena.*- Jaurtiketa egitean gol bat sar daiteke zuzenean falta egin duen taldearen atean.
 - *Jaurtiketa libre ez-zuzena.*- Jaurtiketa egitean ezin da zuzenean gola sartu, hau da, baloiak ateko marra zeharkatu aurretik jaurtiketa egin duena ez den beste jokalaria batek jokatu behar du.
- a) *Jaurtiketa libreak, zuzenak edo ez-zuzenak, norberaren area handi barrutik.* Beste taldeko jokalaria guztiak, gutxienez, baloia dagoen lekutik 6 metrora egongo dira eta area handiaren kanpoaldean geldituko dira baloia areatik kanpo jaurti arte. Baloia jokoan egongo da bere zirkunferentziaren halako distantzia egiten duen une berean eta area handitik haratago jaurtitzen denean. Atezainak ezingo du eskuekin hartu baloia jokoan jartzeko berriro eta baloia ez bada area handitik kanpo jaurtitzen, errepikatu egin beharko da jaurtiketa.
- b) *Jaurtiketa libreak, zuzenak edo ez-zuzenak, norberaren area handi kanpotik.* Beste taldeko jokalaria guztiak, gutxienez, baloia dagoen lekutik 6 metrora egongo dira, baloia jokoan jarri bitartean, baldin eta ateko marraren gainean eta ateko zutoinen artean kokatuta ez badaude. Baloia jokoan egongo da bere zirkunferentziaren halako distantzia egin ondoren.

Beste taldeko jokalaria bat area handian sartzen bada edo baloitik sei metro baino gutxiagora hurbiltzen bada, bi egoera horietako edozeinetan, jaurtiketa libre egin aurretik, arbitroak atzerarazi egingo du araua bete dadin.

Baloia geldirik egongo da jaurtiketa libre egitako unean eta jaurtitzen duen jokalaria ezingo du baloia berriz jokatu beste jokalaria batek ukitu edo jokatu arte.

Nondik egingo da jaurtiketa libre?:

- Defenditzen ari den taldeari bere area txikiaren barruan jaurtiketa libre adierazten bazaio, area horretako *edozein lekutatik*.
- Erasoan ari den taldeari kontrako area txikiaren barruan jaurtiketa libre ez-zuzena adierazten bazaio, *falta egin den lekutik gertuen dagoen area txikiaren marrako puntutik*.



- Jaurtiketa libre ez-zuzena adierazten bada jokalaria batek oinarekin baloia atezainari pasa eta honek eskuekin hartu duelako, *arau haustea egin den lekutik*.

Zigorra:

- Jaurtiketa librea egiten duen jokalaria baloia berriro jokatzen badu beste jokalaria batek ukitu edo jokatu aurretik, beste taldearen aldeko jaurtiketa librea adieraziko da falta egin den lekutik botatzeko, baldin eta arau haustea ez bada kontrako area txikian egin; orduan, area horretako edozein lekutatik jaurtiko baita.

5.4 Aldi baterako kanporatzeak

Jokalaria batek behin eta berriz joko-arauak urratzen baditu, arbitroaren erabakiak hitzez edo keinuz gaitzesten baditu eta bere jokabidea zuzena ez dela uste bada, jokalekutik kanporatu behar da 2 minuturako eta beste taldeari jaurtiketa libre ez-zuzena eman behar zaio, falta egin den lekutik jaurti beharko dena.

